

## geldirik dagoela salatu dute



## 23.346 lagun udako antzezpenetan

Donostia Kulturak Antzoki Zaharrean udan eskainitako antzerki emanaldietan 23.346 ikusle izan dira, Ramon

Etxezarreta Kultura zinegotziak jakinarazi duenez. Iazko udako saioetan, berriz, ia 7.500 ikusle gutxiago izan ziren. Etxezarretaren esanetan, "datuok oso onak dira". Pedro Osinagaren "Una noche de primavera sin sueño" lanak izan du ikusle gehien: 6.256. Antzezpenetako ikusleen batez bestekoari dagokionez, ordea, "Cinco hombres.com" izan da arrakastatsuena, saioko 500 ikusle izan ditu eta.



## Berrikuntzak Matiako TAOn



Ernesto Gasco Bide Publikoeta-ko zinegotziak jakinarazi duenez, Matia kaleko merkataritza TAOn makinek ez diete gidariei derrigorrez txartelik emango. Gidariek nahikoa izango dute matrikularen zenbakia makinan sartzea eta ordaindu beharrekoa ordaintzea. TAO zaindarien, bestalde, eskuko ordenagailua eramango dute eta beraz, matrikulari erreparatuta, aparkatuta dauden ibilgailuen berri izango dute. Gascoren esanetan, neurri honekin sistema arinduko da. Udalak, merkataritza TAOrekin, kotxeek aparkatzeko aukera gehiago izatea lortu nahi du eta beraz, dendariei ahalik eta eragozpen gutxien eragitea.

## Euskararen aldeko giza katea

Hilaren 26an Europako Hizkuntzen Eguna izan zen. Honen haritik, Batzen-ek, Donostiako Euskararen Aldeko Gizarte Mugimenduen Elkarguneak, giza katea antolatu du hilaren 29an. Helburua gutxitutako hizkuntzen eta bereziki, euskararen aldeko aldarrikapena egitea da. Giza katea 17.30etan Kontxako Perlatik hasi eta Kursaaleraingo joango da. Ondoren, Bulebarrean amaituko da. Batzen-en Donostiako euskalgintza munduko 40 elkarte daude, EHE, AEK, Bagera eta hainbat euskaltegi, ikastola eta aisialdi eta kultur talde, tartean.



## Hitz eta pitz

### Izarren hutsa

Koldo Izagirre idazleak Donostiako Nazioarteko Zinemaldiari kritika egin zion joan den igandeko, hilak 23, Euskaldunon Egunkarian, "Izarren hutsa" izenburuko iritzi artikuluan. Izagirrek Zinemaldiari ematen zaion dirua euskal zinea ez bultzatzeko dirua dela uste du: "sekula ez bezala handitu zait zinemaldi honi hemendik ematen zaion dirua euskal zinema ez egiteko dirua delako susmoa".

Pasaian jaio baina Donostian bizi den idazleak, bestalde, gaur egun EEBBetakoa ez den zinegintza oro baztertuta dagoela salatu du, Zinemaldiaren aurtengo kartela hizpide hartuta: "Zinema europarra? Zinema afrikarra? Zinema latinamerikarra? Egile zinema? Eremu urriko hizkuntzen zinema? John Wayne indio izatearen krimena salatzeraz etorri zaigu".

